

# Lehen irakurtea lantzeko galderak

Artiagoitia (2008: 1.kap)

1. Gramatika ulertzeko modu bakarra dago? Nola ulertuko dugu ikasgai honetan gramatika?
2. Zer da gramatika-kategoria bat, nola definitzen da? Zein dira gramatika-kategoriak? Bereizi lehendik ezagutzen zenituenak eta irakurtearen lehen aldiz aipatuta ikusi dituzunak.
3. Gauza bera ote dira egitura eta funtzioa? *Kategoria* eta *sintagma* kontzeptuak zerekin lotzen dira, egiturarekin edo funtzioarekin? Egitura mota bik funtzio bera betetzen duten kasurik aipatzen da irakurtearen?
4. Zein da kategoria aldakorren eta aldagaitzen arteko aldea? Zein da kategoria irekien eta itxien arteko aldea? Zein da kategoria beteen eta hutsen artekoa? Zein da kategoria nagusien edo lexikoen eta txikien edo funtzionalen artekoa?
5. Zeintzuk dira hitz baten kategoria den jakiteko erabili daitezkeen irizpideak? Zein ez da hain fidagarria? Zergatik?
6. Zertan oinarritzen da irizpide morfologikoa?
7. Zein da flexio-hizkien eta eratorpen-hizkien arteko desberdintasuna?
8. Zertan oinarritzen da irizpide sintaktikoa?
9. Zeintzuk dira ohiko gramatika-kategoriak euskaraz? Kategoria bakoitzeko adibideren bat eman.
10. Nola erakutsiko zenuke euskal hitz edo espresio bat izena, adjektiboa, aditza, postposizioa edo adberbioa den?